

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Iruñerriko hiri-garraioaren finantzaketari buruzko negoziatioek urte amaiera arte jarraituko dute

Nafarroako Gobernuak ez dago plana 2014an luzatzearen aurka eta Iruñerriko Mankomunitateak finantzaketa-aukera berriak aztertzeko konpromisoa hartu du

Lunes, 23 de septiembre de 2013

Nafarroako Gobernuak eta Iruñerriko Mankomunitateak eskualdeko hiri-garraioaren finantzaketaren sistema berria (TUC) urte amaiera arte negoziatzen jarraituko dute, egungo plana luzatuz.

Hala erabaki da gaur goizean Sustapen Departamentuan bi erakundeek egin duten bilkuran. Bertan bi aldeek akordioetara heltzeko konfiantza agertu dute.



Nafarroako Gobernuak eta Iruñerriko Mankomunitateak gaur goizean izandako bilkuraren une bat.

Bilkuran agerian geratu denez, Nafarroako Gobernuak indarrean dirauen plana 2014an luzatzea onartu du, eta, aldiz, Mankomunitateak hurrengo bilkuran (urriaren erdialdean egingo da) zerbitzua finantzatzeko proposamen berriak aurkezteko konpromisoa hartu du, ustiapeneko kostuak murriztuz edo baliabideak optimizatuz.

Gainera, Nafarroako Gobernuak aztertuko du zer legezko aukera dagoen Mankomunitateak eskualdeko garraiora eraman ditzan beste sektore batzuetan dituen irabaziak (hondakinak, ura). Gaur goizena izandako bilkuran Nafarroako Gobernuaren aldetik bertan izan dira: Sustapen kontseilari Luis Zarraluqui eta Lurralde Antolaketa, Ingurumen eta Etxebizitzako zuzendari nagusi José Antonio Marcén. Iruñerriko Mankomunitatearen aldetik izan dira: bertako lehendakari José Muñoz; Iruñeko Udalaren zinegotzi Juan José Echeverría eta Aranguren ibarreko Udaleko alkate Manuel Romero.

Gaur egun, TUCa honako era honetan finantzatzen da: % 50 erabiltzaileek ordaintzen duten tarifekin eta beste % 50 administrazioen ekarpenekin (% 60 Nafarroako Gobernuak eta % 40 udalek). Zehazki, Nafarroako Gobernuak urtero 7,5 milioi euro ordaintzen du kontzeptu horretan. Hau da 24 euro urtean Iruñerriko biztanleko, Foru Komunitateko gainerako lekuetako garraio publikoan inbertitzen duen urteko 4 euro/biztanleko datuaren aurrean (1,2 milioi guztira). Alde horretatik,

Nafarroako Gobernuak behin eta berriz esan du, alde batetik, zerbitzuaren kostua murrizteko beharra dagoela, egungo herstura-egoerari egokitzuz, eta bestetik, hainbat administrazioen ekarpena orekatu egin behar dela.